

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Itsasondo



Aurkibidea

Udalerria: Itsasondo

Sarrera



Gipuzkoako Goierrin, Murumendi mendiaren oinetan zutitzen den herria dugu. Itsasondok hiribildu titulua Erret Ogasunari 1615. urte aldera erosi zion, 1399az geroztik Ordizia hiribilduari loturik egon ondoan. Bi zatitan bereizitako hirigunea du: Bata N-1 errepide zaharraren ondoan, Oria ibaiaren barrenean eta bestea Murumendi mendiaren hegalean mailakaturik sakabanatuta. Ondoko herri hauek ditu mugakide: iparraldean, Bidania eta Beizama; ekialdean, Legorreta eta Altzaga; hegoaldean, Arama eta Ordizia eta mendebaldean Beasain. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak:** 669
- **Euskaldunak:** %75,75

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **13**
- Zintak: **13**
- Pasarteak: **56**
- Transkribatutakoak: **2**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **32**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Ordiziako ahotsak

Hizlariak

Joxe Apaolaza Azkargorta (1932-2016)



Joxe Itsasondoko Mendibil Buenos Aires baserrian jaio zen, etxea erriko indianoena zen eta izena hortik datorkio. Bere etxe inguruan losa atertzen zen, herritar asko ibili zen harrobian, hura ateratzen, bera ere hantxe ibili zen errementari lanetan. Joxek ondo ezagutu zituen harrobiko nondik norakoak eta urtetan bertan egon ziren aldaketak. Basoan eta obretan ibili zen lanean berrogeita hamabost urterekin erretiratu zen arte, erretiratu zenean baserri lanetan eta artzain ibili zen.

Mari Karmen Aramendi Alberro (1928)



1928an jaio zen Itsasondoko Etxeberri baserrian. 15 urtera arte Itsasondon bertan ibili zen eskolan eta handik atzera etxeko lanetan aritu izan da beti. Kaleko baserritik atera, ezkondu eta alargundu artean eta gero, sei seme-alaba hazi zituen. Elkarriketan Itsasondoko kontuak kontatzen ditu Joxepa Galarraga eta Maria Urretabizkaiarekin batera.

Bixente

Joxepa Galarraga Garmendia (1932)



1932an jaio zen Albizturko Santa Marina auzoan. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Baliarraingoa. 8 anai-arreba ziren sendian. Eskolan Santa Marinan ibili zen apaiza irakasle zutela. Baserrian bizi izan zen 22 urterekin neskametzara Donostiara joan zen arte. Tabernako lanetan ere aritu zen "Casa Nicolasa" jatetxe ospetsuan. 27 urterekin Itsasondora ezkondu zen. Elkarriketan Itsasondoko kontuak kontatzen ditu Mari Karmen Aramendi eta Maria Urretabizkaiarekin batera.

Carmen Garmendia Amundarain (1927-2018)



Itsasondoko Iraola baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen eta ama Lazkaokoa, gerora Itsasondora bizitzera joana. Bederatzi urte zituen Carmenek gerra hasi zenean, eta ondo gogoan ditu orduko gorabeherak. Izan ere, aita zinegotzi nazionalista zuen, Itsasondoko udalean. Gerra garaiko eta gerra ondoko oroitzapenak kontatu dizkigu, festa-girokoak, elizakoak, lanekoak...

Prudencia Gorospe Arizkorreta (1919-2013)



1919an jaio zen Zegamako Potentenea baserrian. Aita Gosategi goenakoa eta ama Potentenea bertakoa zituen, biak zegamarrak. 10 anai-arreba ziren sendian. Prudencia eta etxekoak baserritik bizi ziren. Eskolan Zegaman ibili zen. Prudenciaren ahizpek janari-denda zuten Donostian eta Prudencia ere bertan aritu zen lanean. Denboraldi batez Donostian egon zen bizitzen ahizpen etxean eta arratsaldeetan maistra batekin ikasten aritzen zen. 15-16 urterekin koinata baten etxera joan zen bizitzera Madrilera eta bertan pasa zuen denboraldi bat. Handik bueltan ezkondu eta Itsasondoko jarri zen bizitzen. Kontzeju taberna errentatu eta bertan aritu zen lanean, taberna bota zuten arte.

Inazio Gorostidi Zuaznabar (1938)



Garaikoetxea baserrian jaio zen 1938an, Urkia auzoan, Itsasondoko. 7 anai-arrebako sendia zuen eta gurasoak amezketarrak zituen. Amezketako etxea erre zenean gurasoak Urkira joan ziren bizitzera, eta bertan jaio zen Inazio. 9 urterekin Itsasondoko eskolara hasi zen, baina Urkikoei eskolarik eman nahi ez eta Altzagako eskolara joan beharra suertatu zitzaion. 3 urte egin zituen Altzagan eta ondoren Tuterarako seminaria joan zen anaiekin batera erdaraz ikasi eta lan egitera. Baserriko lanari lotuta bizi izan bada ere, basoko lanetan ere ibilia da eta, 31 urterekin hasita, Legorretako paper lantegian aritu da lanean.

Joxe Ramon Gorostidi Zuaznabar (1932)



1932an jaio zen Itsasondoko Urkia auzoko Garaikoetxea baserrian. Gurasoak amezketarrak zituen eta hango etxea erre zenean Urkira joan ziren. 7 senide ziren familian. Eskolan Urkian ibili zen lehenbizi eta, ondoren, Tuterako seminarioan. Lana egin eta erdaraz ikasten zuen bertan. Baserritik bizi izan dira beti eta basoko lanetan ere jarduna da Joxe Ramon. Soldadutzatik bueltan hasi zen etxetik kanpora lanean, ia 38 urterekin Lazkaoko "Forjas Lazkano"-n eta gero "Envolvedoras"-etan.

Migel Gorostidi Zuaznabar (1940)



Itsasondoko Urkia auzoko Garaikoetxea baserrian jaio zen 1940ko abenduaren 4an. Gurasoak amezketarrak zituen eta 7 anai-arreba ziren familian. Eskolan, Urkian, Altzagan eta Tuterako seminarioan ibili zen. 16 urterekin Ordiziako okindegi batean hasi zen okin eta ogi-saltzaile lanetan; gerora iturgin lanetan aritu zen Ordizian eta Ameriketean. 4 urte egin zituen Ameriketean. Soldadutza Gasteizko Arakan, Iruñean eta Donostian egin zuen. Ataunen ezkondu zen bertako andrearekin eta bi seme-alaba izan zituzten.

Migel Inazio Iturrioz Elizegi (1920)



Itsasondoko Zelatxo baserrian jaioa 1920an. Aita Ermentari etxekoa eta ama Beitiakoa zituen eta 9 anai-arrebatan gazteena da. Zelatxo baserria herriko jauntxo aberats batena zen eta Inazioren gurasoek hartu zuten errentan. Zelatxon bertan taberna zuten eta ama eta Inazioren arrebak aritzen ziren lanean. Eskolan Itsasondon eta ondoren Ordizian fraideetan ibili zen. Umetan akolito ibili zen Itsasondoko elizan. 18 urterekin soldadu joan zen Lizarrara eta ondoren Ebroko frontera joan beharra suertatu zitzaion. Frontetik bueltatu eta arotz lanetan aritu zen Ordizian. Itsasondon ezkondu eta bertan bizi da.

Jose Manuel Izagirre Mendizabal (1928)

Itsasondoko Iraola baserrian jaio zen. Gurasoak itsasondoarrak zituen eta bost anai-arreba ziren etxean. Herriko eskolan ibilia, 13 urte zituela, baso lanetan hasi zen anaia eta aitarekin. Gerora, Itsasondoko arbel harrobian egin zuen lan bederatzi urtez. Bertan zebilela, anaia hil zitzaion eta baserrira bueltatu beharra izan zuen lanera, bertan erretiratu zen.

Jokin Sarasola Martinez (1927)



Itsasondon jaioa, gurasoak bertakoak zituen. Aita Itsasondoko alkate izan zen II. Errepublikaren garaian, EAJtik. Jokinek urtebete zuenean, familia Donostiara joan zen bizitzera, baina Itsasondorekin harremana gorde zuten. Izan ere, Pizarrillas Sarasola arbel negozioa zeukaten Itsasondon, eta Jokinek bertan egin zuen lana lantegia itxi zuten arte (1970). Donostia eta Itsasondo artean bizi izan da. Bederatzi senidetan gazteena, 12 urterekin Lekarozko barnetegira bidali zuten, eta Oronoz-Mugairin ere egon zen. Merkataritza ikasi zuen. 30 urterekin naturista bihurtu zen, eta erdi landarejale, ezohikoa garai hartarako. 1978tik aurrera eta duela gutxira arte, korrika ibili da, herri lasterketetan parte hartzen. Munduko txapelketa batean ere izan zen, Finlandian, 82 urterekin. Umetan euskara galdu zuen, baina gero baita berreskuratu ere (Itsasondon lanean hasi zenean), eta euskaltzalea da, Bagera euskara elkarteko kide.

Maria Urretabizkaia Aranburu (1930)



1930ean jaio zen Beasaingo Muazpi baserrian. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Orendaingo. 7 anai-arreba ziren sendian. Eskolan Beasaingo ospitalean ibili zen mojekin. 14 urterekin anaia gerrara joan zitzaion eta eskola utzi eta baserrira bueltatu zen, anaia itzuli arte baserrian lagundu asmoz. Anaia gerratik itzuli zenean eskolan jarraitu zuen. Baserritik bizi izan bada ere etxetik kanpo ere aritu zen lanean Beasaingo janari denda batean. 22 urterekin Itsasondora ezkondu zen. Elkarriketan Itsasondoko kontuak kontatzen ditu Joxepa Galarraga eta Mari Karmen Aramendirekin batera.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Familia eta harremanak

1.1. Ataunen ezkondu eta Espainian zehar ezkon-bidaian

- **Hizlaria(k):** Gorostidi Zuaznabar, Migel
- **Elkarriketatzaillea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ITS-003/013
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:26:52. **Bukatu:** 00:29:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena:** 26 urterekin ezkondu zen Ataunen. Ezkon-bidaia trenez joan ziren hilabeterako Katalunia, Alacant, Valentzia eta Madril aldera.

Transkripzioa

- Ordun lanen ibili ziñanen azkena esan diazu...
- E... azkena izan naiz...
- Linternero ibili ziñanen.
- Ba bueno, bai, hemezortzi urtetik hemeretziako mugati hasi ta jubilau arte linternero izan naiz.
- Eta ezkondu, noiz in ziñan?
- Ba hogeita sei urte nittula ezkondu nitzen.
- Nun, Ordizin?
- Ez, Ataunen.
- Ataunen.
- Bai.
- Eta ordun viaje de noviosa...
- Bai, e...
- Itten al zien ordun?
- Bai, bai, bai, bai, bai. Hillabete osoa.
- Hillabete osoa?
- Bai.
- Ez zun eozeiñek ingo ordun, ez?
- Ba seguru asko ez, baiño, bai, guk hillabete osoa in gendun.
- Nik normalen behintzat hamar egun o zazpi egun o astebete o hola aitzen det eta.
- Bai, ba guk hillabete osoa in gendun.
- Ta noa jun ziñeten?
- Ba...
- [...]
- Bai, e, klaro urdun trenez ein gendun ta, kilometriko bat hartu gendun.
- Ze izaten zan hoi?
- Ba, zuk hartzen zendun nahi balin bazenun ehun kilometro itteko ta nahi balin bazenun milla itteko eta nahi bazenun... guk lau milla kilometroko kilometriko bat hartu gendun. Bai. Eta jun giñen ba hemendi, aurrena gauen Iruña jun giñen, eta gero horti jun giñen e... Kataluñan eon giñen bastante lekutan. Zeati nere aldeti nik izeba monja bat baneuken han, eta nere andrean aldeti beste bi bazeuzken, eta, urdun, leku diferentetan nola zeren, ba, hor ibili giñen. Kataluña alde hortan bastante ibili giñen. Ta gero handi Alicantea jun giñen. Alicanten beste egun batzuk pasa giñuzen. Gero Valentzin'e izan giñen.
- Josus, toki asko korrittu zittuzuen!
- Bai. Eta gero Madriden'e, atzeneko ez dakit zenbat egun Madriden pasa giñuzen. Baiño totalen hillabete in gendun. Ta etorri giñen zeati etorri ta handi bi egunea nere lagun baten boda genduken, ta ordun etorri giñen ba ya beste boda batea juteko etorri giñen.

1.2. Garai bateko ezkontzak

- **Hizlaria(k):** Gorostidi Zuaznabar, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ITS-003/014
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:29:03. **Bukatu:** 00:31:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
 - Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

- **Laburpena:** Orduko ezkontzak tabernan ospatzen ziren. Zuriz janzen ziren emakume gehienak. Banketeetan ondo jaten zen. Ezkondu ondoren emaztearen etxean bizi izan ziren Ordiziako etxea bukatu arte. Etxearen izena aipatzen du. Bi seme-alaben aita da.

Transkripzioa

- Ta orduko bodak nolakok izaten zien, banketek eta itten zien?
- Bai, bai, bai, bai. Bai. Ez dizut esango igual oain askotan aiñe jende izaten zanik, baiño bai, bai. Baiño ordun'e...
- Ze izaten zan tabernan ala etxen itten zan familikokin?
- Ez, ez, ez, ez, ez. Hoi gure gurason ta hoik ya bazkari berezik eta prepatuta ta hoik etxen itten zien, baiño ez, gure garaien ya, gure garaien ya restaurantetan-ta itten zan. Bai, bai.
- Eta, zea, bodako trajek-eta, txuriz? o nola izaten zan? txuriz?
- Bai, ya gure garairako danak danak igual ez arten e, baiño ya orduako gehienak bai, gehienak bai.
- Eta janak eta? Banketeko janak eta?
- Ba, bueno, esango dizut igual... seguruasko uain baiño igual arrai halamoduzko gauza batzuk igual eo, zerbait gutxixo izango zien, baiño bestela oain bezin ondo jaten zan ordun, e. Igual esango dizut, ba, esango nuke igual langostinon kasutan eo ez dakit ze eo, bueno, halamoduzko zea batzutan igual zerbait gutxixeo izango zan, baiño bestela, ba, bestela bazkarie izaten zan solomilloa ta hoi danetatik, ta oaingo estiloa, bazkarie. Oso ondo jaten zan ordun'e.
- Eta ezkondu ta gero bizitzea noa jun ziñen?
- Bizitzea, bueno, ba, Ordizin'e pixue arten bukau gabe zeon, ta andren etxen eon giñen, urtebete baten eo han eon giñen, Ordiziko pixue bukau arte.
- Eta gero Ordizin jarri ziñeten.
- Bai. Ta gero Ordizin bizi izandu gea, lehen kalen, eta oain ba... Oain dala hamasei urte hau erosi gendun. Lau... lau urte osotan, asten taillerren lanen arittu, eta zapatu ta jai, lau urten arreglau gendun o konpondu gendun etxe hau. Eta...
- Zer zan lehen beste baserri bat zan?
- Bai, hau basarri bat zan. Ta zeon... bueno, ez zeon hain gaizki're, baiño ez zeon ondo.
- Nola izena du honek?
- Aranzegiberri.
- Ta zenbat seme-alaba euki zittuzun?
- Seme bat eta alaba bat. Berrogei urteko semea dauku eta hogeita hemezortzi urteko alaba.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Urkia auzoko Garaikoetxea baserrian jaioa (ITS-002/001)

1940an jaio zen Itsasondoko Urkia bailarako Garaikoetxea baserrian. Gurasoak amezketarrak zituen. Aitaren jaiotetxea erre egin zen eta horregatik joan ziren Itsasondora bizitzera. Sei anai-arreba zituen.

2. Basotik idiekin egurra ateratzea diru iturri ona (ITS-002/002)

Baserrian ganadua zuten. Idiekin basotik egurra ateratzen zuten eta diru pixka bat lortzeko bide ona zen. Txekorrak haragitarako saltzen zituzten eta txerri eta hegaztiak ere bazituzten.

3. Etxeko dolarean sagardoa egiten (ITS-002/003)

Garia etxeko soroetan egiten zuten eta ogia etxean egiten zuten. Fruta-arbolak zituzten eta sagardoa urtero egiten zuten. Dolarea ere bazuten; sagardoa nola egiten zuten azaltzen du.

4. Ogia etxean egina; errotak (ITS-002/004)

Egunero ekonomikan ogia egiten zuen amak. Errotak Tolosan, Legorretan eta Itsasondan zeuden eta aita zaldia hartuta askotan joan ohi zen Tolosara. Errotan irinaren hainbesteko bat kentzen zien, ordainetan. Asteazkenetan amak okindegiko ogia eramaten zuen etxera eta jaki preziatua izaten zen Migelen etxekoentzat.

5. Eguneroko otorduetako jakiak (ITS-002/005)

Eguneroko otorduetan, babarruna jaten zuten; eta, igandeetan, garbantzuak. Gerora, arroza izaten zen. Taloak askotan jaten zituzten. Oilaskoa gutxitan jaten zen, saldu egiten baitzituzten. Anekdotak bat kontatzen du. Oilaskoak etxeko artoarekin hazten zituzten. Ama oso hegazti zalea zen.

6. Azokara saltzera joaten zirenekoa (ITS-002/006)

Ordiziako azokan inguruko baserrietako produktuak saltzen ziren. Migelen etxekoek arrautzak, gereziak eta gaztainak eramaten zituzten saltzera azokara, besteak beste. Astoan edo zaldian joaten ziren azokara eta postua lurrean jartzen zuten.

7. Gizonak egun osoz azokan; emakumeak eguerdirako etxera (ITS-002/007)

Ordizian bi plaza zeuden: Txanketarenekoa deiturikoa (behiak saltzen zituztena) eta Garagartzakoa (idiena). Baserritarrek egun osoa pasatzen zuten bertan; emakumeak eguerdirako etxera joaten ziren.

8. Azoka egunean kanpoan bazkaltzeko ohitura (ITS-002/008)

Ordizian denda eta taberna ugari zegoen. Azokara joandakoek ohitura handia zuten tabernan bazkaltzeko. Angulak ez zituen edozeinek jaten, baina antxoa eta txitxarroa oso merkeak izaten ziren.

9. Urkian eta Altzagan eskolan (ITS-002/009)

Eskolara Urkiko eskolara joan zen zazpi urtetatik bederatzi urtetara arte; apaizak irakasten zien. Altzagan maisu ezagun bat zegoen eta Migel eta anaia bertara joan ziren 10 eta 11 urte zituztela ikastera. Oinez joaten ziren. Itsasondoko kontsejuan emakume bat egoten zen eta hark ematen zien jaten eskola umeei. Iluntzera arte ez ziren etxera joaten.

10. Altzagako eskola 10 duroan (ITS-002/010)

Urkian 3 apaiz ezberdinek eman zioten eskola txandan. Euskaraz ikasten zuten; dotrina oso garrantzitsua zen. Bi anaien Altzagako eskola partikularra 10 duro ordaintzen zuten Migelen gurasoek. Maisua kanpotarra zen, erdalduna.

11. Euskaraz hitz egiteagatik zigorra (ITS-002/011)

Urkiako eskolan, euskaraz hitz eginez gero zigorra jasotzen zuten. Eskolako zigor ezberdinak aipatzen ditu eta Altzagako maisuak behin zigortu zuenekoak. Altzagako eskolan bi urte egin zituen.

12. Tuterako jesuiten eskola pribatuan lau anaiekin batera (ITS-002/012)

Migel beste lau anaiekin batera Tuterako jesuiten eskolara joan zen ikastera 12 urterekin. Eskola pribatua zen, oso garestia. Goizetik gauera lanean aritzen ziren eta denetarik egiten zuten: sukaldari, zerbitzari... Migel zerbitzari eta postari lanetan aritu zen. Adin ezberdinetakoak batera egoten ziren. Erdaraz ikasi zuten. Udan bi hilabeterako bakarrik bueltatzen ziren etxera.

13. Gau-eskolan ikasi zuen gehiena (ITS-002/013)

Tuteratik etxera bueltatu eta baserriko lanetan aritu zen. Bitartean, negu batez gau-eskolan ibili zen ikasten. Irakaslea goraipatzen du, dakien gehiena hantxe ikasi omen zuen.

14. Okindegiko lana (ITS-002/014)

Gau-eskola amaitu zuenean Ordizian hasi zen lanean, gurasoek egurra eramaten zuten okindegi batean. Ogia egin eta saltzen aritzen zen goizaldeko 03:00etatik 08:00etara. Ondoren, saltzen aritzen zen. Okindegian logela zuen, eta bertan bizi zen. Ogia saltzen nagusiarekin batera ibiltzen zen kotxeko karneta atera zuen arte. Korneta batekin deia egin eta jendea hurbiltzen zitzaien ogia erostera.

15. Okindegiko soldata: hilean mila pezeta (ITS-002/015)

Hilabeteen mila pezeta irabazten zituen okindegian. Pasadizo bat kontatzen du. Okindegia nagusiz aldatu zenean Migelek utzi egin zuen lana, ez baitzen jabeekin ondo moldatzen.

16. Iturgin lana; 20 urterekin Alemaniara (ITS-002/016)

Okindegia utzi ondoren iturgin lanean hasi zen Ordiziako "Nazabal y Mendizabal"en. Iturgin lanetan urte eta erdi zeramatzala Alemaniarako lan eskaintza egin zioten eta bertara joan zen beste lankide batekin. 20 urte zituen orduan eta etxea nagusiek utzi zieten. Alemanieraz gaizki moldatzen ziren eta han bizi zen emakume zegamar batek egiten zien bitartekari lana arazoren bat zutenean. Diru asko irabazten zuten.

17. Soldadutza garaian andregaiari bisita ezkutuan (ITS-002/019)

24 urterekin joan zen soldadutzara, Gasteizera Arakara, handik Iruñea eta Donostiara. Ez du gogoko soldadutzaz hitz egitea. Ez zuen egun bakar batean ere etxera bueltatzeko baimenik izan. Iruñean armeriako laguntzaile eta Donostian bakero lanetan aritu zen. Andregaiarengana etxera ihes egiten zueneko pasadizoa kontatzen du.

18. Soldadutzako zigorra, ilea moztea (ITS-002/020)

Ez zuen goserik pasa soldadutzan, kanpoan afaltzen zuen beti. Paseoko ordua izaten zuten eta kalera joaten ziren. Zigorretako bat ilea moztea izaten zen, baina berari ez zioten sekula egin.

19. Santa Ana jaiak Ordizian (ITS-002/021)

Emaztea Ordiziako festetan ezagutu zuen. Ordiziako Santa Ana jaiak aipatzen ditu. Burgosko banda militarra ekartzen zuten festetan. Kuadrilla Ordizian zuen. Itsasondoko eta Urkiko festak aipatzen ditu.

20. Adinekoak jokoan eta umeak pilotan (ITS-003/001)

Jende nagusia jokoan aritzen zen tabernan eta gazteak jolasean. Igande arratsaldean bezperetara joan beharra izaten zuten. Jolasean Urkiako pilotalekuan aritzen ziren. Gazte asko ziren auzoan.

21. Igande goizeaz mezara eta arratsalde bezperetara (ITS-003/002)

Elizara joatea derrigorra zen, etxean fede handia izaten zen. Igande goizean mezara joaten ziren, eta arratsaldeko 15:00etan bezperetara, arrosarioa errezatzera. Iluntzean, kanpaia jotzearekin batera, etxera joan beharra izaten zuten.

22. Dantza lotuan eginez gero kongregaziotik kanpora (ITS-003/003)

Dantza lotua ez zegoen libre Itsasondon eta apaizak enteratuz gero kongregaziotik botatzen zituzten. Migel ez zen kongregazioko partaide izan. Kongregazioan zeudenek zinta bat eramaten zuten. Jaunartze txikia Urkian eta handia Itsasondon egin zituen; dotrina jakin behar izaten zen.

23. Abarkak eta gomazko zatak (ITS-003/004)

Eguneroko bizimoduan abarkak eta gomazko zatak janzen zituzten, ez zuten botak erosteko dirurik izaten eta. Baserriko lanetan mahoizko galtzak eta abarkak erabiltzen zituzten. Arropak josten emakume guztiek jakiten zuten, baina arropa egin, jostunek egiten zuten.

24. Fedeari lotutako ohiturak (ITS-003/005)

Arrosarioa egunero errezatzen zuten etxean; iluntzetan denak elkartzen ziren eta arto zuritzeko garaian ere berdin. Sinesmenak. ogia lurrera eroriz gero aitaren egiten zuten berarekin, ogia ez zuten buruz behera sekula jartzen, ezta kutxiloa ere. Ateetan eta terrenoetan gurutzeak jartzen ziren tximista eta gaitz txarren aurka.

25. Arropak askan garbitzen zituzten (ITS-003/007)

Urkian beti ezagutu zuen argia, haizea zela eta askotan geratzen ziren argirik gabe posteak erorita. Ura ez zegoen inon Migel umea zenean, gerora jarri zuten. Arropak askan garbitzen zituzten; lixiba egiten zuten. Izarak eta arropa zuria tinetan garbitzen zituzten.

26. Ardi-ilezko koltxoiak eta mueilezko jergoiak (ITS-003/008)

Koltxoiak ardi-ilez eginak izaten ziren eta mueilezko jergoiak. Koltxoiak atera eta garbitu ondoren makilarekin jotzen ziren. Telefono bakarra zegoen bailaran. Irratia, berriz, 12 urterekin ezagutu zuen; irratsaio denak erdaraz izaten ziren.

27. Errazionamendua eta estraperloa (ITS-003/009)

Gerra ondoreneko estraperlo eta errazionamenduaren inguruko pasadizo bat kontatzen du.

28. Ordizia eta Itsasondoko lantegiak (ITS-003/010)

Ordizia eta Itsasondoko orduko lantegiak izendatzen ditu. Itsasondon jende askok lan egiten zuen harrobi asko zeudelako.

29. Caf lantegiaren eraginez erdaldunak herrira (ITS-003/011)

Itsasondon euskaraz hitz egiten zen kalean erabat; Ordizian, aldiz, dena erdaraz. Migelen adineko asko dago euskaraz ez dakiena. Beasainen Caf lantegiaren eraginez erdaldun ugari sartu zen.

30. Etxetik kalera oinez eta handik lanera bizikletan (ITS-003/012)

Migelen baserrira bidea auzolanean egin zen, ez zuten diru-laguntzarik izan. Migelek Itsasondoko kontsejupean uzten zuen bizikleta eta baserritik oinez jaitsi eta handik lanera bizikletan joaten zen. Karneta Ordizian atera zuen eta kotxea gaztetan lortu zuen.

31. Idiekin eta gurdiarekin mendira (ITS-004/003)

Idiekin Murumendira joaten ziren idiekin, gurdia atzetik zutela. Burdinazko gurpilak zituzten gurdi haiek. Gerora gomazko gurpilak atera ziren.

32. Eskolan izandako maisuak (ITS-004/006)

Apaiza izaten zuten maisu normalean. Gerora, ordea, maistrak etorri ziren. Eskolan ez zuten asko ikasi. Eibarko maisu bat izan zuten, euskalduna, euskaraz hitz egin nahi izateagatik bidali egin zutena. Gerora, Gasteizko maisua etorri zen, baina hark ez zuen auzoetako ikaslerik onartzen.

33. Tuteran ikasten eta lanean ibiliak (ITS-004/009)

Joxe Ramonek Itsasondon eta Tuteran ikasi zuen. Tuterara gaztelania ikastera joan ziren; eskolan ikasi eta lan egiten zuten han. Ezagun baten bidez joan ziren Tuterara.

34. Tuterako bizimodua eta baldintzak (ITS-004/010)

Tutera zer lan egiten zituzten azaltzen dute. Aberatsen semeak joaten ziren hara gehienbat. Ordaindu egiten zieten han lan egiteagatik, baina ez asko; jan, ordea, oso ondo egiten zuten. Lo egiteko, ikasle bakoitzak bere gela izaten zuen. Etxera udan itzultzen ziren.

35. Tuteratik etorritakoan, basoko lanean hasi (ITS-004/011)

16 eta 19 urterekin itzuli ziren etxera Tuteratik. Orduan basoan hasi ziren lanean. Basoko lana jornalaren truke izaten zen. Segan eta pinuak sartzen aritzen ziren, besteak beste.

36. Lehengo segak nolakoak ziren (ITS-004/012)

Lehen segak orain baino zertxobait hobeagoak izaten ziren. Segak mota ugari zegoen. Ordiziatik erosten zituzten segak normalean.

37. Enborra moztu eta garraiatzeko baliabideak (ITS-004/013)

Basoko lanetan sega, aizkora eta trontza erabiltzen zuten. Enborra nola moztzen zuten azaltzen dute. Lortzen zuten egurra inguruko zerrategietara saltzen zuten. Egurra garraiatzeko, hasieran idiak erabiltzen ziren; baina gerora, kableak. Kableek nola funtzionatzen zuten azaltzen dute.

38. Inguruko zerrategiak eta errotak (ITS-004/014)

Inguruan zerrategiak eta errotak non zeuden azaltzen dute. Errota erre zenekoa gogoan dute. Lehen errotak non-nahi zeuden, ogia etxean egiteko ohitura baitzegoen.

39. Ogia etxean egiten zuten (ITS-004/015)

Etxean ogia eta taloa egiten zituzten ekonomikan. Zer errotatara joaten ziren aipatzen dute. Aldiko 100 kilo inguru eramaten zuten errotara.

40. Etxeko menua: babarrunak egunero (ITS-004/017)

Egunero babarruna jaten zuten etxean. Igandetan babarrun zuriak eta garbantzuak jaten zituzten. Gauean babarrun hotzak jaten zituzten. Lehen baratzea zuten: artoa, garia eta arbia ereiten zuten. Gerra ostean, errazionamendua zegoen eta ogi gogorra jasotzen zuten.

41. Karobiko lana fundiziorako (ITS-004/019)

Karobia nork erabiltzen zuen azaltzen dute. Harrobia karobi ondoan zegoen. Karobietako lana fundiziorako izaten zen, eta garraiorako kamioiak erabiltzen zituzten. Fundiziorako balio ez zuena baserrira eramane zezaketen.

42. Lazkaoko lana eta erretiroko baldintzak (ITS-004/022)

Joxe Ramonek Lazkaon egin izan du lan 38 urtean. Lan asko egiten zuten; enpresaren bilakaeraz hitz egiten du. Erretiroa hartzeko garaian, ondo joan zitzaion.

43. Lanean hasi zireneko bizimodua (ITS-004/023)

Inazio Legorretako paper-fabrikan aritu zen lanean. Egurra txikitzeko makinara egurra sartzen zuen hasieran, eta gerora aldatu egin zen sistema. Lanean zeudela, bazkaltzeko nola moldatzen ziren azaltzen du. Lehen 8 ordu egiten zuten lan, baina bazeuden 12 ordu sartzen zituztenak ere. Irabazten zuten dirua ez zuten etxean eman behar izaten, ordurako helduak baitziren.

44. Auzoaren antolamendua lehen (ITS-004/025)

Urkian lehen 22 baserri zeuden. Familiak lehen orain baino ugariagoak ziren. Beste auzoetan zer zegoen azaltzen dute.

45. Tabernara igandetan (ITS-004/027)

Urkiatik igandetan inguruko taberna batera joaten ziren. Urkian ere bazen taberna. Tabernara igandetan joaten ziren. Gazteak karta-jokoan eta dantzari aritzen ziren.

46. Ura nondik lortzen zuten (ITS-004/028)

Putzu zaharra ezagutu zuten. Garai hartan norbere garbitasuna beste era batekoa izaten zen, ez zitzaion orain bezain besteko garrantzia ematen. Ur edangarria nondik ekartzen zuten azaltzen dute.

47. Etxean argindarra izan artekoa (ITS-004/029)

Argirik ez zuten gaztetan. Turbinatik etortzen zen argia, eta horretarako ur asko behar izaten zuten. Argindarra izan baino lehenago, kandelak eta kinkak erabiltzen zituzten.

48. Auzoan gaixotasunak eta erditzeak zeudenean (ITS-004/031)

Norbait gaixotzen zenean, Itsasondora jaitsi behar izaten zuten. Gaixoak lehen bizkarrean eramaten zituzten, gerora autoan. Auzoan emagina bazuten. Emakumeak haurra izatean zailtasunak izaten bazituen, ospitalera eramaten zuten.

49. Urkiako eta inguruetak jai-giroa (ITS-004/033)

Urkian lehen giro ona zegoen: gazte asko ziren, denbora gutxian gehiago disfrutatzen zuten... Auzoko festak zirenean, kaleko jende asko etortzen zen. Azkoitiko Martirieta auzoko jaietara oinez joaten zenik ere bazegoen. Inguruko festetara joaten zirenean, meza entzun ostean, musika entzuten zuten, zerbait bazkaldu, eta erromeriara joaten ziren.

50. Kuadrilla-giroko edariak (ITS-004/034)

Kuadrillan zeudenean, anisa edaten zuten gailetekin. Beste batzuek uxuala edaten zuten, baina hura gogorra zen.

51. Sagardoa egiteko prozesua eta sagar motak (ITS-004/035)

Sagardoa baserri gehienetan edaten zen. Etxe askotan zeuden dolareak. Sagardoa auzolanean egiten zen. Sagardoa egiteko prozesuaz eta sagar motaz hitz egiten dute.

52. Lehen sagar hobeak biltzen ziren (ITS-004/036)

Sagarra jateko ohitura handia zegoen lehen. Lehen sagarra sana zen, ez zen ustelik ateratzen ia.

53. Azokan saltzen eta biltegietan erosten (ITS-004/039)

Etixerako janaria erosi behar zutenean, Ordiziara joaten ziren normalean. Lehen 4 biltegi baziren Ordizian, baina orain bakarra. Beraiek baserriko jeneroa azokan saltzen zuten. Lehen gaztaina asko jaten zen. Gereziak eta sagarrak asko saltzen ziren orduan.

54. Azokan saltzeko baserrian bildu behar (ITS-004/040)

Jendeak lehen azokan eta dendatan erosten zuen, baina dendetan ere ez zegoen gaur adinako aukera. Gaztainak danbolinean erretzen ziren. Gaztainak, gereziak, babarrunak... noiz eta nola biltzen ziren azaltzen dute.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com